



## GOBERNU BATZARRA

2022.12.02

**Alkatea:**  
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Xabier Balerdi Tolosa**  
**Patxi Amantegi Zubiria**  
**Xarles Iturbe Pasaban**  
**Begoña Tolosa Mendia**  
**Jose M. Villanueva Telleria**

**Idazkaria:**  
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzaile akzidentala:**  
**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita biko abenduaren bian, 11:30ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ezohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

1. Iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren oinarri espezifikoa, 20/2021 legearen 8. xedapen gehigarritik eratorritakoa eta administrazio bereziko eskalako azpieskala teknikoko eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoaren arduradunaren plazari dagokiona.

**1. IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN 8. XEDAPEN GEHIGARRITIK ERATORRITAKOA ETA ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOKO ETA HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK, INGURUMENA, MUGIKORTASUNA ETA TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN ARDURADUNAREN PLAZARI DAGOKIONA.**

I.- Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordioa hartu zuen 2022ko abenduaren 1ean egindako bileran:

*“LEHENA.- Onartzea Tolosako Udaleko 20/2021 legetik eratorritako ez ohiko lan eskaintza publikoan sartutako plazak betetzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarriak eta deialdiak; zehazki, honakoak:*

*- Aldi baterako enplegua finkatzeko prozesu berezien oinarri orokorrak.*

*- Aldi baterako enplegua finkatzeko prozesu berezien oinarri espezifikoa; zehazki, honakoak:*



- *Administrazio Orokorreko goi mailako teknikaria. Atxikitako lanpostua: kontratazio teknikaria (3.103 kodea)*
- *Administrazio Orokorreko administraria. Atxikitako lanpostua: Giza Baliabideetako administraria (3.303 kodea)*
- *2 Administrazio Bereziko teknikari. Atxikitako lanpostuak: biolin irakaslea (8.303 kodea) eta euskaltegiko irakaslea (9.203 kodea)*
- *Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorrak.*
- *Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikokoak; zehazki, honakoak:*
  - *Administrazio Orokorreko azpieskala teknikoak, A1 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
1	<i>Komunitate eta Gobernantzako arduraduna (12.101 kodea)</i>

- *Administrazio Orokorreko kudeaketako azpieskala, A2 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
1	<i>Etxebizitza teknikaria (3.104 kodea)</i>
1	<i>Kirol instalazioen kudeatzailea (10.102 kodea)</i>
1	<i>Gazteriako teknikaria (8.201 kodea)</i>
1	<i>Berdintasun teknikaria (11.101)</i>
1	<i>Berdintasun teknikaria (11.102)</i>

1. *Administrazio Orokorreko administrarien azpieskala, C1 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
3	<i>Gizarte zerbitzuetako administraria (2) (5.105 kodea)</i>
	<i>Kontu-hartzaitzako administraria (1) (2.106 kodea)</i>
1	<i>Euskara eta hezkuntzako administraria (9.204 kodea)</i>
1	<i>Kiroletako administraria (10.103 kodea)</i>



2. *Administrazio Orokorreko laguntzaileen azpieskala, C2 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
1	<i>Kulturako laguntzaile polibalentea (8.109 kodea)</i>

3. *Administrazio Orokorreko menpekoen azpieskala, AP azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
1	<i>Ikastetxeko atezaina (6.219 kodea)</i>

4. *Administrazio Bereziko azpieskala teknikoa, A1 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
1	<i>Informatika eta Telekomunikazioetako arduraduna (13.101 kodea)</i>
1	<i>Hirigintzako Arkitektoa (6.103 kodea)</i>

5. *Administrazio Bereziko azpieskala teknikoa, A2 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
3	<i>Gizarte Langilea "Informazioa, Orientazioa eta Balioespena" (5.102.3 kodea)</i> <i>Gizarte Langilea "Familia eta Bizikidetzatza" (5.102.2 kodea)</i> <i>Gizarte Langilea "Prebentzioa eta Gizarteratzea" (5.102.1 kodea)</i>
1	<i>Obretako Ingeniari Teknikoa (6.204 kodea)</i>
1	<i>Ingurumena, jasangarritasuna eta landa-eremuko teknikaria (6.301 kodea)</i>
1	<i>Txistulari bandaren zuzendaria-irakaslea (8.316 kodea)</i>
1	<i>Klarinete irakaslea (8.304 kodea)</i>
1	<i>Biolontxelo irakaslea (8.307 kodea)</i>



<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
1	<i>Perkusio irakaslea (8.308 kodea)</i>
1	<i>Tronpa irakaslea (8.309 kodea)</i>
1	<i>Dultzaina irakaslea (8.311 kodea)</i>
1	<i>Tronpeta irakaslea (8.312 kodea)</i>
1	<i>Oboe irakaslea (8.313 kodea)</i>
1	<i>Kontrabaxu irakaslea (8.314 kodea)</i>
1	<i>Koral irakaslea (8.315 kodea)</i>
1	<i>Udal Musika bandako zuzendaria (8.401 kodea)</i>
5	<i>Txistularia (8.402 kodea)</i>
1	<i>Euskaltegiko zuzendaria eta irakaslea (9.201 kodea)</i>
1	<i>Euskaltegiko Idazkari akademikoa eta irakaslea (9.202 kodea)</i>
1	<i>Liburutegi-zerbitzuaren arduraduna (8.110 kodea)</i>

6. *Administrazio Bereziko zerbitzu berezien azpieskala, C1 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
2	<i>Udaltzaina (G/A/G) (4.105 kodea)</i>
1	<i>Udaltzaina (G/A/G) (4.107 kodea)</i>
1	<i>Udaltzaina (G/A/G) (4.107 kodea)</i>

7. *Administrazio Bereziko azpieskala teknikoa, C1 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
1	<i>Delineatzailea- ikuskatzailea (6.206 kodea)</i>

8. *Administrazio Bereziko zerbitzu berezien azpieskala, C2 azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
1	<i>Gidari pertsonal balioaniztuna (6.209 kodea)</i>



9. *Administrazio Bereziko zerbitzu berezien azpieskala, AP azpitaldea:*

<b>PLAZA KOPURUA</b>	<b>LOTUTAKO LANPOSTUAK</b>
2	<i>Pertsonal balioaniztuna (6.212 kodea)</i>

**BIGARRENA.-** *Deialdiak martxan jartzea eta argitaratzea oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta iragarki-taulan.*

**HIRUGARRENA.-** *Ebazpen honen berri ematea langileen ordezkari.*"

**II.-** Hala ere, udal gobernuaren partetik adostu da onartu gabe geratzea Administrazio Bereziko azpieskala teknikoko A1 azpitaldeko plaza bati dagozkion oinarriak; zehazki, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoaren arduradunaren lanpostua (6.101 kodea) atxikita duen plazarenak. Plaza honetarako zehazki erabaki dute berriazko oinarri espezifikoak egitea eta horiek onartzeko ez ohiko Tokiko Gobernu Batzarrerako deia egitea.

**III.-** Aipatutako deialdi hori onartzea, legez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 g) artikulua araberak, Alkateari dagokio, baina Tolosako Udalaren kasuan, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta ikusita 2022/281 ebazpena, non Alkatetzak Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu duen karrerako funtzionarioak zein lanpostu finkoak hornitzeko oinarriak onartzeko eskuduntza, gai hau Tokiko Gobernu Batzarrak ebatzi beharko du.

**IV.-** Udal zerbitzu juridikoek honako txostenak aurkeztu dituzte:

1. Aldi baterako enplegua finkatzeko prozesu bereziak arautuko dituzten oinarrien (orokorren eta espezifikoaren) aldeko txostena.
2. Aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak arautuko dituzten oinarrien (orokorren eta espezifikoaren) aurkako txostena.

Bada, aipatutakoa aintzat hartuz, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Tolosako Udaleko 20/2021 legetik eratorritako aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesu baten oinarri espezifikoak; zehazki, honakoak:

10. Administrazio Bereziko azpieskala teknikoa, A1 azpitaldea:

PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTUAK
1	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoaren arduraduna (6.101 kodea)

**BIGARRENA.-** Deialdia martxan jartzea eta argitaratzea oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta iragarki-taulan.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea langileen ordezkari.

**Gai zerrendatik aparte eta gaiaren premiatasuna dela eta, Gobernu Batzarrak aho batez onartu ondoren, honako gai hau aztertu da:**

### **2. ONARTZEA ALDI BATERAKO ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUEN OINARRI ESPEZIFIKOAREN ALDAKETA.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko abenduaren 1ean, aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorrak eta espezifikoak onartu zituen. Bada, oinarri espezifiko horietan ez zeuden hainbat xedapen jasota.

Hori horrela, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO  
UDALA

2022IGBA0031

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea aldi baterako enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri espezifikoei aldaketa hauek sartzea:

- A2 taldekoei IT txartelak zenbatzea.
- IT txartelak zenbatzen diren oinarrietan, maila oinarrizkoan eta aurreratuan baloratzea
- Lehiaketako Administrazio Orokorreko C1 azpitaldean: merituen b.3 eta b.4 ataletan baloratzea C1/C2 azpitaldeen hautaketa-prozesuetan oposizio-faseak gainditu izana.

**BIGARRENA.-** Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta iragarki-taulan argitaratzea.

**HIRUGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea langileen ordezkarietara.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:30ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

ESKUF86ce532-d2d8-49a0-9737-ee7ba790d9f6



**ERANSKINA**

**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN 6. eta 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOA eta ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAKO AZPIESKALA TEKNIKOARI DAGOKIONA**

**BASES ESPECIFICAS DE LA CONVOCATORIA DEL PROCESO DE LA CONVOCATORIA EXCEPCIONAL DE ESTABILIZACIÓN DE EMPLEO TEMPORAL DE LARGA DURACIÓN DERIVADO DE LAS DISPOSICIONES ADICIONALES 6ª Y 8ª DE LA LEY 20/2021, CORRESPONDIENTE A LA SUBESCALA TÉCNICA DE LA ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL**

**1. – Deitutako plazak.**

Administrazio Bereziko eskalako azpieskala teknikoko plaza baterako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

**1.– Plazas convocadas.**

Se convoca una plaza de la subescala técnica de la Escala de Administración Especial, por el turno libre, de acuerdo con la siguiente distribución:

PLAZA KOPURUA	LOTUTAKO LANPOSTUAK	EZAUGARRIAK (hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data, Destino Osagarria, Berariazko Osagarria, betekizun espezifikoa, etab.)
NÚMERO DE PLAZAS	PUESTOS DE TRABAJO ASOCIADOS	CARACTERÍSTICAS (perfil lingüístico, fecha preceptividad, CD, CE, requisitos específicos, etc.)
1	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoaren arduraduna  Responsable de Urbanismo, obras y servicios, medio ambiente, movilidad y transición energética	LP M: 28; BO: 40.113,50 euro 4. HE (D.D: 2021/06/30) Titulazioa: Arkitekturako Gradua edo antzekoa Baldintza gehigarria: Hirigintza eta Lurralde Antolaketako Ikasketei buruzko ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa.  N. CD: 28; C.ESP: 40.113,50 euro PL 4. (F.P: 2021/06/30) Titulación: Grado en Arquitectura o asimilado Requisito adicional: Curso de Estudios en Urbanismo y Ordenación del Territorio de 700 horas de duración mínima.

*\* Taula honetako ordainsariek aldaketak izan ditzakete, lanpostuen balorazio berria onartzearen ondorioz. / Las retribuciones de esta tabla pueden estar sujetas a cambios como consecuencia de la aprobación de la nueva valoración de puestos de trabajo*





## 2- Parte hartzeko baldintzak.

2.1. – Plaza lortu nahi dutenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera orokorrarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. – A1 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zenbatekoa honako hau da: 20 euro.

2.3. – Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, goran aipatutako titulazioa eskatzen da plaza bakoitzerako.

## 3. – Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak.

3.1. – Deialdi honen xede den plazari lotutako lanpostuan, 4. hizkuntza-eskakizuna bete beharko da. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea eskatzen dute.

3.2. – Era berean, deialdi honen xede den plazari lotutako lanpostuak betekizun espezifiko hauek dauzka: Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoaren arduraduna:

Baldintza gehigarria: Hirigintza eta Lurralde Antolaketako Ikasketei buruzko ikastaroa, gutxienez 700 ordukoa

Betekizun hori oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaztatu beharko da.

## 4. – Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta

## 2.- Requisitos de participación.

2.1.– Quienes aspiren a la plaza deben cumplir los requisitos establecidos con carácter general en el apartado 2 de las bases generales.

2.2.– El importe de la tasa por la inscripción en las convocatorias para la selección de personal de plazas del subgrupo A1 es: 20 euros.

2.3.– En relación a lo dispuesto en el apartado 2. h) de las bases generales, se exige la titulación arriba mencionada para cada una de las plazas.

## 3.- Requisitos específicos para la adjudicación de puestos.

3.1.– En el puesto de trabajo asociado a la plaza objeto de esta convocatoria es requisito de provisión el perfil lingüístico de euskera 4. El conocimiento del euskera es requisito de los puestos con fecha de preceptividad vencida.

3.2.– Asimismo, el puesto de trabajo asociado a la plaza objeto de esta convocatoria tiene asignado el siguiente requisito específico: Responsable de Urbanismo, obras y servicios, medio ambiente, movilidad y transición energética:

Requisito adicional: Curso de Estudios en Urbanismo y Ordenación del Territorio de 700 horas de duración mínima.

El requisito citado deberá ser acreditado de conformidad con lo establecido en la base 2 y 7 de las bases generales.

## 4.- Proceso selectivo.

El sistema de selección será el de concurso y constará de dos (2) partes:

4.1.1. Primera parte, el concurso: consistirá en el examen y valoración



egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopurua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzaileria izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien % 25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 9.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzaileria 4. hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko duten plazak eskuratu nahi dituzten hautagaientzat. Bestetik borondatezkoa eta ez baztertzaileria, 4. hizkuntza-eskakizuna ez duten lotutako lanpostuetarako lehiatzen direnentzat. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu behar. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berriaz Tolosako Udalarari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin behar da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

de los méritos alegados y acreditados por las y los aspirantes en la instancia, por medio del sistema de autovaloración, y se efectuará asignando a cada uno de ellos los puntos que le correspondan con arreglo al Baremo de méritos. Solo se valorará el número de instancias ordenadas por puntuación que se haya dispuesto en las bases generales que rigen la convocatoria.

El concurso no tendrá carácter eliminatorio, si bien será necesario obtener una puntuación mínima del 25% del total de puntos, a los efectos de lo establecido en la base 9.2 de las bases generales.

4.1.2. Segunda parte, prueba de euskera: de carácter obligatorio y eliminatorio para las y los aspirantes que opten a las plazas con puestos de trabajo asociados, con perfil lingüístico 4, de carácter preceptivo, y de carácter voluntario y no eliminatorio para las personas que opten a las plazas con puestos de trabajo asociados con perfil lingüístico 4 de carácter no preceptivo, consistirá en determinar y acreditar en todo caso, el conocimiento del euskera al referido nivel.

Cuando figure acreditado en el Registro Unificado de Títulos y Certificaciones de Euskera, no habrá que acreditarlo, para lo cual la persona participante autorizará expresamente al Ayuntamiento de Tolosa a su comprobación en el citado registro.

No obstante, sí deberá aportarse cualquier otro título o certificado de euskera no incluido en dicho registro, pero sí convalidado de acuerdo al Decreto 297/2010 de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de euskera, y su equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.



4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuestekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbuespenak baino ez dira onartuko.

#### **5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

#### **6. Lan-poltsa.**

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

#### **7. Lehentasun-klausula aplikatzea.**

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, azpieskala teknikoan emakumeen gainordezkaritza dagoelako.

Quienes pretendan acreditar el perfil lingüístico 4 al amparo de lo dispuesto en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, deberán aportar la certificación académica correspondiente. A estos efectos, únicamente se reconocerán aquellas exenciones que se hayan validado en el RUTCE-Registro Unificado de Títulos y Certificados de Euskera.

#### **5. Calificación del proceso selectivo**

5.1. La calificación del concurso vendrá determinada por la suma de los puntos atribuidos con arreglo al Baremo de méritos que se incluye como Anexo I.

5.2. La segunda parte se calificará de Apto o no Apto para aquellas personas que opten a las plazas que llevan aparejado perfil lingüístico preceptivo. Cuando no fuera exigible el cumplimiento de perfil lingüístico alguno, el conocimiento del euskera será considerado como mérito.

5.3. La calificación final de las y los aspirantes vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en el total del proceso selectivo.

#### **6. Bolsa de empleo.**

Del presente proceso selectivo no se creará bolsa de empleo.

#### **7. Aplicación de la cláusula de prioridad.**

A los efectos de la aplicación del artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, no se aplicará la cláusula de desempate prevista en el citado artículo al existir sobrerrepresentación de las mujeres en la subescala técnica.



## I. ERANSKINA.

### MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, Administrazio Bereziko eskalako azpieskala teknikoan edo azpieskala teknikoarekin parekatutako kategorian, A1 azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0,0274 puntu.

a.2. Esperientzia espezifiko:

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostua betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan Administrazio Bereziko eskalako azpieskala teknikoan edo azpieskala teknikoarekin parekatutako kategorian,

## ANEXO I.

### BAREMOS DE MÉRITOS

De conformidad con lo dispuesto en las disposiciones adicionales sexta y octava de la ley 20/2021 de 28 de diciembre:

a) Experiencia: hasta un máximo de 80 puntos

a.1. Experiencia general:

Se entiende por experiencia general, la experiencia por los servicios prestados en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, en puestos adscritos a los cuerpos, escalas, subescalas, opciones, especialidades o grupos profesionales asimilados a los anteriores que sean objeto del respectivo proceso selectivo, con independencia del carácter, funcional o laboral, de la relación de la que traiga causa.

Se valorará hasta un máximo de 60 puntos, de acuerdo al siguiente baremo:

-Por servicios prestados en la subescala técnica de la escala de Administración Especial, o en la categoría asimilada a la subescala técnica, subgrupo A1, en cualquier Administración pública, incluida la Administración convocante, 0,0274 puntos por día trabajado.

a.2. Experiencia específica:

Se valorarán, hasta un máximo de 20 puntos, de manera específica, diferenciada y complementaria a la valoración de la experiencia general, los servicios prestados en la Administración convocante por el desempeño del puesto convocado en el respectivo proceso selectivo, de acuerdo al siguiente baremo:

-Por servicios prestados en la subescala técnica de la escala de Administración



A1 azpitaldean egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finkoko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1. – Deitutako plazara sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean (1) dagokion titulua izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorri gero: 10 puntu.

Unibertsitate-masterreko edota doktoregoko titulazioa edo baliokidea (MECES 3. eta 4. mailak)

b.2.- Plaza lortzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (baldintza gisa egiaztatutakoaz bestelakoa), betiere titulazioak deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorri gero: 7,5 puntu.

b.3. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administra-zioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesioaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkarteetan, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,1 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorri gero.

Especial o en la categoría asimilada a la subescala técnica, en el subgrupo A1, en la Administración convocante, 0,00914 puntos por día trabajado

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad. En todo caso, los períodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo parcial o con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa. No se podrá computar en un mismo día más de un contrato/nombramiento.

b) Titulaciones y superación de pruebas en procedimientos de acceso a la condición de funcionario de carrera o laboral fijo. Se valorarán hasta un máximo de 20 puntos los siguientes méritos:

b.1.– Por estar en posesión de un título correspondiente en un (1) nivel de formación académica superior al exigido para el acceso a la plaza convocada, siempre que sean titulaciones adecuadas al ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas: 10 puntos.

Titulación de máster universitario y/o doctorado, o equivalente (Niveles MECES 3 y 4)

b.2.- Por estar en posesión de un título académico del mismo nivel que el exigido para el acceso a la plaza (distinto al acreditado como requisito), siempre que sean titulaciones adecuadas al ámbito funcional de los puestos asociados a las plazas convocadas: 7,5 puntos.

b.3.– Por la cantidad de horas de recepción de cursos formativos relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos u homologados por entidades oficiales (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios profesionales, Mutuali-



b.4. – Erakunde ofizialetan emandako prestakuntza (Herri Administra-zioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkartean, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,5 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorriz gero.

b.5.- Deialdia egin duen administrazioan oposizio-fasea gainditzeagatik, lanposturik lortu gabe bada ere, karrerako funtzionario edo lan-kontratu finkoko langile izateko prozeduraren Administrazio Bereziko eskalako azpieskala teknikoan edo azpieskala teknikoarekin parekatutako kategorian, A1 azpitaldean, betiere deialdia BOEn argitaratu den Enplegu Eskaintza Publikoaren bidez egin bada: 10 puntu.

b.6.- Deialdia egin duen administrazioan lanpostuak bitarteko edo aldi baterako betetzeko prozeduraren oposizio-fasea gainditzeagatik, Administrazio Bereziko eskalako azpieskala teknikoan edo azpieskala teknikoarekin parekatutako kategorian, A1 azpitaldean, betiere deialdi hori dagokion aldzkari ofizialean argitaratu bada: 10 puntu.

dades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones), 0,1 puntos por cada hora de recepción, hasta un máximo de 20 puntos.

b.4.– Por la cantidad de horas de impartición de cursos formativos relacionados con el ámbito funcional de los puestos de trabajo asociados a las plazas convocadas, e impartidos en entidades oficiales (Escuelas o Institutos de Administración Pública, Administraciones Públicas, Universidades, Colegios profesionales, Mutualidades, Fundaciones, Asociaciones, Federaciones), 0,5 puntos por cada hora de impartición, hasta un máximo de 20 puntos.

b.5.- Por haber superado, sin haber obtenido plaza, la fase de oposición de un procedimiento de acceso a la condición de personal funcionario de carrera o laboral fijo de la subescala técnica de la escala de Administración Especial o categoría asimilada a la subescala técnica, subgrupo A1, en la Administración convocante siempre que haya sido a través de Oferta Pública de Empleo cuya convocatoria haya sido publicada en el BOE: 10 puntos

b.6.- Por haber superado, la fase de oposición de un procedimiento para la cobertura interina o temporal de puestos de trabajo de la subescala técnica de la escala de Administración Especial o en la categoría asimilada a la subescala técnica, subgrupo A1, en la Administración convocante siempre que dicha convocatoria haya sido publicada en el Boletín Oficial correspondiente: 10 puntos



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022IGBA0031-2022-12-02 Ezohiko Gobernu batzarra akta/2022-12-02 Ezohiko